

Gizonezko batek emakume adingabe bati sexu-erasoa egin zion Zarautzen

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 31/01/2024

Indarkeri matxista kasu hau salatzeke ehundaka lagun manifestatu dira.

Pasa den ostegunean Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak eman zuen Zarautzko kasuaren berri, eta jakinarazi zuen joan den ostegunean gizon bat atxilotu zutela, neska adingabe bati sexu eraso egitea leporatuta. Egun bat beranduago eraman zuten epailearen aurrera, baina ikerketak oraindik zabalik jarraitzen du.

Astelehenean ehundaka lagun manifestatu ziren indarkeri matxista kasu hau arburiatzeko. Manifestazioa Lege Zaharren Enparantzan hasi zen, eta herrigunea zeharkatu ondoren, hasitako leku berean bukatu da. Bukaeran irakurri dute manifestua. Azaldu dute indarkeria sexistaren prebentzioa egiteko gaia "lehen lerroan" jartzea beharrezkoa dela, "erroko sentsibilizazio eta formakuntza lana egin behar dugu". Zentzu honetan eskatu dute eragile, administrazio nahiz elkarte bakoitzak bere ardura har dezala, "inork ez dugu herrian berriz horrelakorik gertatzerik nahi". Manifestua irakurri ondoren, parte hartu dute Lizardi institutuko bi gurasok, irakasleek, hezitzaileek zein hainbat ikasleek. Azken hauek "libre" izan nahi dutela adierazi dute ozen. Ekitaldia txalo artean bukatu da.

Irudia: Zarautzko Hitza

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/gizonezko-batek-emakume-adingabe-bati